Zeberio Udalak herrian nekazaritza indartzeko asmoz hiru arlotan oinarritutako proiektua jarri du martxan. Oinarri bat lurrrarena da. Udalak bitartekari lana egingen du lurjabeen eta eskatzaileen artean, Udalak berak ez baitu lurrik. Bigarren atala, eskola zaharrean, erabili gabeko eraikinaren beheko solairuan, lehen seko-rearekin lotutako zerbait montatzea da. Gune horretan, azkenean, kontserbak egiteko tokia montatuko da, hektarea bat eskuratu dituen Basortu taldearen eskutik. Hirugarren atala apartamentuena da, «pentsatzen genuen batzuentzat oztipoa izango zela lurra Zeberion eduki eta etxebizitzarik ez egotea. Hiru apartamentu hartzeko aukera eman genuen, lurrarekin batera», aipatzen du Aitor Urieta Zeberioko zinegotziak.

Tokiko garapena eta bereziki nekazaritza bultzatzeko helburuarekin jarri du martxan proiektu hau Zeberio Udalak. Joan den azaroan egin zen lehenengo deialdia eta lurra eta eskola zaharretako beheko solairua esleitu ziren, Basortu osatzen duten lau kideek eskuratu zutelarik esleipen hori. Zentzu horretan, kontserbak egiteko guneari garrantzia handia ematen diote, «zerbitzu bat ez eze, elkartzeko gune bat eta dinamizatorako gune bat bilakatu daitekeelako: formakuntzarako, baseritarrak elkartzeko gune bat...». Lehenengo deialdi horretara talde bakarra aurkeztu zen, «kuantitatiboki txikia izan arren kualitatiboki oso ondo baloratzen dugu, ekoizpena, transformazioa eta dinamizazioa biltzen dituelako», dio Urienek.

Aurrerantzean, urtean hiru aldiz zabalduko dituzte deialdiak eskaerak aurkezteko. Otsailean izan zen bigarren deialdia eta sei proiektu aurkeztu ziren. Hor lurrraren arazoa sortu zaio udalari, ez baitu lur nahikoa eta gainera teoriarik Udalak adostuta zituen hainbat lur bertan behera geratu ziren. Dena dela, beste hektarea bat esleitu da bikote batentzat eta beste hektarea erdi jada martxan dagoen proiektu baten osagarri gisa.

Orain, falta diren proiektuei lurra esleitzeko helburua markatu du Zeberio Udalak, epe labur-ertain batean lur gehiago eskuratzeko helburuarekin batera.



ad Basortu: basortuelkartea@gmail.com

Desde enero, que es cuando tuvieron acceso a la tierra, están trabajando de una manera agroecológica. El terreno donde trabajan no se encontraba en muy buen estado porque habían hecho rallys en años anteriores. Se trata de una tierra ácida y arcillosa. Nada más entrar en enero segaron la hierba, dieron un primer arado y empezaron a poner los primeros frutales. Se muestran contentos porque ha sido un invierno suave, propicio para este tipo de trabajos. «La idea es que sea una parcela diversificada. Decidimos que íbamos a poner una buena parte de frutales de distintos tipos que dieran en distintas épocas para poder ir metiendo en las cestas». También cuentan con una parte de frutos pequeños, un invernadero de 500 metros y huerta al aire libre.

### AUTONOMIA

Para el año que viene han dejado por plantar más terreno con frutales y fruta pequeña. «Estamos haciendo una instalación progresiva, porque es lógico y porque al mismo tiempo tenemos que cuidar a los peques, hay que ir poco a poco». También agradecen el apoyo de otras personas productoras de la zona, «que nos están echando muchos cables y apoyando un montón», como es el caso del par de *auzolanes* que han realizado y donde han obtenido muy buena respuesta.

De cara a la comercialización tienen en mente trabajar con cestas para grupos. Están creando un blog y de momento cuentan con tres posibilidades, tres lugares donde expondrán su idea y cabe la posibilidad de que surjan grupos. Aún así, quieren ir poco a poco y no ponerse unas expectativas que después no puedan cumplir en cuanto a la producción.

En ese proceso de ir poco a poco, tienen pensado ir haciendo su propio compost, su semilla y el resto de cuestiones que les permitan ir ganando autonomía y sostenibilidad. El objetivo es, al fin y al cabo, asentarse y conseguir afianzar un proyecto vital que les permita vivir de la agricultura.

«Hemos oído muchas veces que hace falta un lugar para la transformación, para el embotado de frutas y hortalizas, y así decidimos darle al proyecto una parte de transformación para que sea más integral, y no solo de producción», explican. Esta sala de transformación, actualmente en fase de construcción, está destinada a satisfacer también al resto de productores de la zona. «Nuestra idea es abrirlo a la gente que le apetezca, que sea algo colectivo, porque hasta ahora hay que irse hasta Gipuzkoa a enbotar. Se trataría de compartir la maquinaria y tener el registro sanitario».

Junto con la tierra y el espacio de transformación, el proyecto que presentaron tiene también un tercer eje, ligado concretamente a la formación y la recuperación de saberes, «este tercer eje es más político, de realización de talleres, de creación de red con campesinos de la zona...».

# Kideen proiektuak sendotu eta dinamika berreskuratzekeo helburua du UKAgroasanbladak

ESKUALDEKO DOZENA BAT PERTSONAK OSATU ZUTEN URIBE KOSTAKO AGROASANBLADA DUELA PARE BAT URTE. NEKAZARITZAN MODU AGROEKOLOGIKOAN BEHARREAN HASI NAI ZUTEN GAZTEZ OSATUTAKO TALDEAK DINAMIKA BIZIA HARTU ZUEN, BAINA LURRA TOPATZEKO ZAILTASUNEK ERAGINDA, ESKUALDETIK KANPORA JO BEHAR IZAN DUTE EUREN PROIEKTUA GAUZATZERA. HASIERAKO DINAMIKAREN BEHERAKADA ERAGIN ZUEN HORREK. MARTXAN DIREN PROIEKTU INDIBIDUALAK SENDOTU ETA AGROASANBLADAREN DINAMIKA BERRINDARTZEKO HELBURUA DUTE ORAIN.



**D**uela urte bi Sopelako Udalak azoka agroekologikoa antolatzekeo aukera eskeini zuen eta inguruko hainbat ekoizle horren inguruan berba egitekeo elkartu ziren, «orduan konturatu ginen Uribe Kostan ez geundela produktore asko, bertako ekoizpena indartu behar genuela ohartu ginen», adierazten dute. Ekoizlerik egon ez arren, nekazaritzan beharrean hasteko jendea egon bazegoen, «orduan erabaki genuen azoka ez antolatzea, baina bai agroasanblada antolatzea». Horrela, dinamika bizi-bizia hartu zuen Uribe Kostako Agroasanbladak, bilerak, jardunaldiak, ikastaroak...

Idea eta proposamen ugari sortu ziren, baina lurraren arazoa zen, eta da, eskualdean nekazaritzan hasi nahi dutenen arazo larriena. Uribe Kostan beste batzuetan baino latzago bizi da nekazaritza lurraren galera prozesua eta baita eraikuntza sektoreak eragiten duen presioa eta prezio gorakada espekulatiboa. Agroasanbladan parte hartzen zuten pertsonetatik bakarrak eskuratu ditu lurak familiatik eta horrek «kriston inpotentzia» sortu zuen. Lan ideologiko handia egin zuten agroasanbladaren baitan, «baina gero praktika, lurra, falta zitzaigun». Horren eraginez, kide gehie-

*«Zatikako Lurralde Planak gogor joko du hemen, hainbat lur galtzeko arriskua egon daiteke eta horra bideratuko dugu gure borroka».*

nek eskualdetik kanpo jo behar izan dute lurra bilatzera: Bakio, Fruiz, Muxika, Errigoiti, Lezama, Zamudio... «Lurren banku bat sortzea pentsatu genuen, baina ez genuen inongo erramintarik hori egitekeo, gogoia bai, baina jakin barik nondik nora jo». Konparazio bat egitekeo, aipatzen dute agroasanbladak eginiko lan ideologiko sendoa fibrazko pertika bikain bat bezala izan zela, «pertika ederra egin genuen eta salto itzela egin genuen, baina gero azpian ez zegoen koltxoirik. Salto handia egitekeo prestatu ginen, ideia asko genuen, transformaziorako gune bat egitekeo ideia genuen, gauza asko, baina lurrik ez, eta apur bat indarra galtzen joan ginen eta denbora aurrera zihoanez bakoitzak bere proiektu propioa bilatu zuen, gehienek eskualdetik kanpo».

Azken urtea dinamika gutxirekin eman du agroasanbladak. Hori bai, proiektu ezberdinetan laguntzeko auzolanak antolatu izan dituzte. «Orain behintzat nekazaritza proiektu zehatzak ditugu eta hurrengo pausua proiektu horiek sendotu eta berriro dinamika berreskuratzea izango litzateke».

Hasierako dinamika indartsuak behe- ra egin badu ere, Uribe Kostako Agroasanbladak eginiko lanak fruituak



Uribe Kostako Agroasanbladak ospaturiko bilera baten irudia ikus daiteke goian. Eskuineko aldean, azoka bat eta elikadura burujabetza irudikatuz eginiko mural bat.

Argazkiak:

[www.ukagroasanblada.blogspot.com.es](http://www.ukagroasanblada.blogspot.com.es)

[www.blogetxeandia.wordpress.com](http://www.blogetxeandia.wordpress.com)



eman ditu, dinamika horrek, esate baterako, Sopelan hileroko Plazaratu azoka antolatzen lagundu baitu, inguruko ekoizle eta artisauen parte hartzea ahalbidetzen duena.

## LUR BEHARRA AZALERATU

Eginiko lan ideologikoa hor geratzen da eta etorkizunean lan hori lagungarria izango da, «Zatikako Lurralde Planak gogor joko du hemen, hainbat lur galtzeko arriskua egon daiteke eta horra bideratuko dugu gure borroka». Lurrari dagokion funtzioa berreskuratzea nahi dute: elikagaiak ekoiztea. Horretarako ezinbestekoa ikusten dute espekulaziotik kanpo geratzea, «bestela ezin delako gutxieneko epe batera lurra eskuratu. Lortu dezakezu aldi baterako lagatzea, baina jarraikortasun edo ziurtasun barik, eta nekazaritzan aritzeko urte batzuetarako ziurtasuna behar duzu». Zentzu horretan, Udal mailako plangintzen bidez «lurra nekazaritzarako izango dela blindatzeak erreleboa ematea posible egingo luke».

Aurrea begira, nekazaritzan hasteko eskualdean lurra behar duten gazteak eta baserritarrak daudela erakutsi

asmoz ekimenak abiarazteko asmoa dute. «Gauzak aldatu ezean, ikusten da Uribe-Kosta ekoizpena saltzeko leku ona izango dela, baina ekoizteko aukera lehendik baserria dutenek izango dute soilik, nahiz eta berez klima aldetik oso egokia den ekoizpenerako». Era berean, martxan diren nekazaritza proiektuak sendotzen jarraitzea da asmoa. Guztira dozena bat nekazaritza proiektu dira. Hori bai, aurrerago esan bezala, Uribe-Kostatik haratago garatutako proiektuak dira, lurgabeziak bultzatuta. Guztiek modu agroekologikoan egiten dute lan eta salmenta zuzena erabiltzen dute komertzializatzeko, izan indibidualki edo izan kontsumo taldeen bidez, «auzolanak egiten jarraituko dugu, horrela geure harreman sarea eta dinamika mantendu eta indartzeko».

# Asegurar la explotación para una mayor protección y seguridad



Una vaca que se escapa a la carretera, que arremete contra un montañero, cualquier otro accidente como puede ser un incendio en la cuadra, o simplemente un animal que muere puede resultar un grave perjuicio para cualquier explotación. Asegurar la explotación no supone un coste excesivo y, sin embargo, puede resultar un gran alivio en alguno u otros casos citados anteriormente.

Existen varias opciones y posibilidades que van desde una protección básica a otras que cubren más supuestos accidentes o perjuicios.

Informarse es gratuito, fácil y conveniente.

946749008 - 946693985



Orain dela 30 urtez geroztik, **Landa eremuko aseguruak gure bizitza dira.** Zure alboan egin dugun esperientziak, **aditu egin gaitu nekazaritza eta abeltzaintra aseguruetan,** horrek zure aseguruak aukeratzeko aholkularitza eta baldintza onenak eskaintzeko era eman digu.

**AGROMOMUTUAN** zozketa batekin zure konfiantza saritu nahi dugu, aseguratu guztien artean,

**12 POLIZA ERABAT DOAN,** hilabetero bat, poliza bakoitzeko 6.000 € gehieneko kostearekin.

**365 eguneko lasaitasunaz goza dezarun, DOAN!**

Promoziorako Oinarriak  
[www.agromutua.es/promo](http://www.agromutua.es/promo)

☎ 902 50 44 43 🌐 [www.agromutua.es](http://www.agromutua.es)

**AGROMUTUA**  
Gure aseguruak landa guztietan





EHKOlektiboko kideak sagarra landatu zuten Garro jauregiaren parean.

## EHKOlektiboa elkarte ofizial moduan eratu eta zuhaitza landatu du ospatzeko

**E**HKOlektiboa elkarte ofizial bilakatu da. Biltzen hasi, helburuak finkatu, topaketak egin... apurka-apurka pausuak ematen jarraitzen du elkarteak eta aurrera begira Barne Araudia zehaztea izango da helburua, EHKOlektiboaren funtzionatzeko era hobeto zehazteko. Prozesu hau 2014ko topaketetan beteko da, urtearen amaieran hain zuzen, Barne Araudia eta Onarpen Komisioaren funtzionamendua izango baita topaketa horien helburuetako bat. EHKOlektiboaren egoitza nagusia Lapurdiko Lekorne herrian finkatu da, bertako Garro jauregian, hain zuzen. Garro jauregiak agroekologiarekin duen konpromisoa hartu

Elkartearen sorreraren sinbolo gisa EHKOlektiboaren zuhaitza landatu zen Garro jauregiko eremuetan. Lapurdiko «Dantzari arrosa» barietatea.

da kontuan. Egoitza nagusiaz gain, komunikazio eta administrazio mailan bideak errazte aldera, bai Hegoaldean zein Iparraldean egoitza administratiboak izendatuko dituzte.

### ERATZE ASANBLADA

EHKOlektiboak eratze asanblada antolatu zuen martxoan Zaldibian, estatutuak onartu eta elkartearen junta osatzeko helburuarekin. Eratze asanbladan azpimarratu zen hain zuzen Barne Araudia garatzearen garrantzia, ondoren onarpen komisioa martxan jartzeko. Kide izateko atek zabalik ditu laborari zein herri-tar orok:

[ehkolektiboa@gmail.com](mailto:ehkolektiboa@gmail.com)

# «Kontsumitzaileak gauza elaboratuagoak nahi ditu, zabaldu eta jateko prest izatea, horretara moldatzen saiatu gara»

AITOR INTXAURRAGA · LANEKO KOOPERATIBAKO KOORDINATZAILEA

## - Noiz sortua da Laneko kooperati- ba?

Batzarrak egiten 1995ean hasi ginen, ideiak landu eta proiektuari forma eman. Urte horren amaieran sorrera formala egin genuen, 1996an hemen (Gizaburuagan) obrak egin genituen eta irailean ekoizteari ekin genion.

## - Estructura altekik, ze bazkide kopuru du Lanekok?

Hasiera batean hamaika pertsona izan ginen, gero hiru gehiago eta momentu honetan hamabost bazkide gara.

## - Zenbat langile zarete?

Sei langile gara. Eskaratzean hiru lagun, komertzial bat ni koordinatzaile moduan. Eta beste pertsona batek bulegoko lanak egiten ditu, kasu honetan lanaldi erdian.

## - Inguruetako baserrietako produktu hartzen duzue?

Marka bi ditugu. Hasiera batean Lea-Artibai Ondarea markarekin hasi ginen. Nongoak garen eta gure produktua nongoa den adierazten du, eskualdekoa. Baina ikusten genuen estructura bat genuela martxan eta horri etekin bat etara behar zitzaiola, produktu faltan geundela eta aukera genuela hemen ez dauden beste produktu batzuk saltzeko. Orduan Labore marka sortu genuen eta horrekin, adibidez, Nafarroa eta Errioxa inguruko pera tomatearekin frijitua egiten dugu, marrubi marmelada, melokotoi marmelada, garbantzuak... egiten ditugu.



## - Bideragarritasuna lortzeko helburu horretan, zeintzuk dira zure ustez horretarako klabeak?

Egia esan, hasi ginenean asko jakin barik hasi ginen. Ez genekien enpresa bat muntatzea zer zen, kontserbak etxerako egiten bagenituen ere ez genekien osasun araudia betetz kontserbak saltzeko egitea zer den... Hori guzti hori ikasi egin behar izan genuen. Inbertsioak egin, merkaturatu topatu...

Apurka apurka lekua topatu eta jen-

dearen aldetik estimazioa lortu dugu, jendeak kontzeptu onean du gure produktua. Ez bakarrik kalitate aldetik, horren atzetik dagoena era inportantea da: bertako produktuaz lan egitea, bertako produktua transformatzea, aukera dugun neurrian bertako baserriarrei erostea... Jendeak horrek suposatzen duena baloratu egiten du.

- Produktu barietate handia duzue. Ekoizpenaren aldetik sagardoa izan-



go da kopuru handiengan egiten duzuen.

Hasiera batean gehiago egiten genuen, hobeto saltzen zen, baina sagardoa estankatu egin da. Badira bost edo sei urte nahiko estankatua dagoena sagardoaren kontsumoa. Banatzaileen bitartez ikusten dugu tabernetan gutxiago kontsumitzen dela sagardoa. Beste produktu batzuk, ostera, igotzen joan dira: barazki kontserbak eta mermeladak adibidez. Momentu honetan zerbait gehiago egiten ditugu kontserbak sagardoa baino.

**- Kontsumo ohiturak aldatzen doaz?**

Txakolina adibidez, hasi ginenean oso gutxi saltzen zen eta kontsumoa igotzen joan da, orain txakolina ere egiten dugu. Igarri dugun beste gauza bat da jendeak gauza elaboratuagoak nahi dituela, potoa zabaldu eta jateko prest izatea, eta gu horretara moldatzen saiatu gara.

**- Komertzializatzeko garaian, azoketan gutxi saltzen dela aipatzen da sarritan.**

Momentu batean azoken boom bat egon zen, herri guztiek nahi zuten feria bat eduki. Herri askotan azokak antolatu izan dira jaietako espektakulu baten moduan. Espektakulu moduan antolatu izan direnez, jendeak espektakulu moduak hartu ditu: pasada bat eman, begirada bat eman, txikiteoan jarraitu... Saltzailea adorno moduan geratzen da askotan, apaingarri bat da. Aukeratu egiten dugu eta interesaren arabera erabaki joan edo ez, osterantzean hasi orain eta azarora arte asteburuero dago azokaren bat, han ez bada hemen. Eta klaro, krisiak ere eragina izan du salmenten jeitsieran, gutxiago irabaziz gero gastatu ere gutxiago egiten da.

**- Ze motatako kontserbak egiten dituzue?**

Hainbat marmelada egiten ditugu: arabia, mugurdia, okarana, kiwia, marrubia, melokotia, albertxikoa... Sagar-dultzea oso ekoizpen inportantea da guretzat, kontsumo inportantea du. Barazkietan gehien bat piper txorizero mamia, bizkaitar saltsa, indaba zuria, gorria eta garbantzuak. Hauek berotu eta jateko moduan egiten ditugu.

*«La gente nos puede llamar para transformar su producto aquí. Les explicamos qué opciones hay, las cantidades en que trabajamos, los botes que usamos, el precio... Es un servicio que nos interesa ofrecer»*

Jendeak jatekoa gero eta errezago nahi duela ikusten dugu.

**- Hainbat produktu ekologikoan egiten dituzue.**

Bai, sagardo ekoizpenaren zati bat, sagar zukua, sagar-dultzea, arabi marmelada eta arabi purea. Lehen, hasiera batean, gehiago egiten genuen ekologikoan, erremolatxa, azenarioa, porrua... gehiago egiten genuen. Baina ekologikoan egiten duten bazkideek soberakin gutxi izaten dute. Transformatzeko garaian kopuru txiki horiek kostu altua dute, beste alde batetik. Etekina txikia zela ikusi genuen eta utzi egin genion. Orain barazkiekin nahastean purea egiten dugu, edo pistoa.

**- Beste ekoizleentzat edo partikularrentzat transformaziorako eskaintza baduzue? Izan ere erregistro sanitarioa eskuratzeko egin behar diren inbertsioak kontuan izanda, aukera ona izan daiteke ekoizle askorentzat.**

Betidanik egin izan dugu hori eta interesa dugu horretan, instalazioei erabilera emateko. Jendeak deitu egiten digu eta planifikazio bat eginez aukera dago euren produktua hemen ontziratzeke. Azaldu egiten diegu ze aukera dagoen, ze kopurutan lan egiten dugun, ze ontzi mota erabiltzen ditugun, prezioak... Aurrekontu bat egiten dugu eta ados jartzen bagara, ba aurrera. Interesgarriena ekarritako produktu kopurua gure instalazioentara ahalik eta gehien egokitzea da, horrela unitate bakoitzeko merkeago irtengo baita.



## IPOD Mayo 2014

### Índice de Precios en Origen y Destino de los alimentos

PRODUCTO	PRECIO ORIGEN (€/kg)	PRECIO DESTINO (€/kg)	DIFERENCIA PRECIO ORIGEN-DESTINO(1)	DIFERENCIA PORCENTUAL ORIGEN - DESTINO	IPOD	
<b>ACEITUNAS ENTAMADAS</b>	<b>0,66</b>	<b>4,53</b>	<b>6,86</b>	<b>536%</b>	<b>IPOD AGRÍCOLA 4,95</b>	
ACEITE OLIVA VIRGEN EXTRA*	1,98	3,55	1,79	79%		
PATATA	0,14	0,72	5,14	414%		
CEBOLLA	0,33	1,03	3,12	212%		
<b>AJO</b>	<b>0,75</b>	<b>5,31</b>	<b>7,08</b>	<b>608%</b>		
<b>REPOLLO</b>	<b>0,14</b>	<b>1,19</b>	<b>8,50</b>	<b>750%</b>		
COLIFLOR	0,37	1,44	3,89	289%		
<b>CALABACIN</b>	<b>0,15</b>	<b>1,28</b>	<b>8,53</b>	<b>753%</b>		
CHAMPIÑON	1,20	3,61	3,01	201%		
ALCACHOFA	0,45	1,84	4,09	309%		
BROCOLI	0,34	1,91	5,62	462%		
ACELGA	0,37	1,82	4,92	392%		
BERENJENA	0,30	1,52	5,07	407%		
TOMATES DE ENSALADA	0,32	1,89	5,91	491%		
ZANAHORIA	0,26	1,00	3,85	285%		
PIMIENTO VERDE	0,55	1,98	3,60	260%		
PIMIENTO ROJO	0,51	1,92	3,76	276%		
<b>PEPINO</b>	<b>0,21</b>	<b>1,37</b>	<b>6,52</b>	<b>552%</b>		
<b>LECHUGA*</b>	<b>0,11</b>	<b>0,87</b>	<b>7,91</b>	<b>691%</b>		
PLÁTANO	0,70	1,84	2,63	163%		
PERA	0,47	1,83	3,89	289%		
CEREZA	1,35	6,24	4,62	362%		
MELOCOTON	0,60	3,01	5,02	402%		
NECTARINA	0,60	3,01	5,02	402%		
CIRUELA	0,72	3,49	4,85	385%		
SANDÍA	0,28	1,30	4,64	364%		
MELÓN	0,52	1,94	3,73	273%		
<b>NARANJA</b>	<b>0,19</b>	<b>1,28</b>	<b>6,74</b>	<b>574%</b>		
LIMÓN	0,52	1,63	3,13	213%		
TERNERA 1º	4,24	17,27	4,07	307%		<b>IPOD GANADERO 2,92</b>
CORDERO	3,13	10,74	3,43	243%		
POLLO*	1,35	2,91	2,16	116%		
CERDO*	1,39	5,27	3,79	279%		
CONEJO	1,70	5,14	3,02	202%		
HUEVOS M*	0,80	1,50	1,88	88%		
LECHE VACA	0,39	0,82	2,10	110%		

\* Lechuga(€/ud); Espárrago verde (€/manojo); Huevos €/docena; Ternera (kg/canal); Conejo kg/vivo; Cordero (kg/vivo de 24 kg y pascual 1º); Cerdo 20kg y pollo €/kg vivo; Aceituna entamadas; Cítricos (incluida recolección)

(1) - número de veces que se multiplica el precio de origen hasta que llega al consumidor.

**IPOD GENERAL  
4,55**





OlatuKoopen aurkezpen prentsaurrekoaren ostean, Donostian.

## Ekonomia sozial eta eraldatzailea saretu, hedatu eta olatu bihurtu

**O**latuKoop sarea ekonomia sozial eta eraldatzailean jarduten duten enpresa, elkarte, erakunde eta kooperatibek osatzen dute. Kideen arteko elkartasuna, jendartearen ongizatea eta jarduera ekonomikoak ondare komunari ekarpen bat egitea da OlatuKoopen helburua.

Sareari garrantzia emanez, ez du gune zentral bat, egitura edo organu bat, «erakunde batek esan dezake OlatuKoopen printzipioak betetzen dituela eta adhesioa eskatu, orduan kidea den beste erakunde batek baieztatzen du hori horrela dela», azaltzen du Liher Gonzalezek,

Kideen arteko elkartasuna, jendartearen ongizatea eta jarduera ekonomikoak ondare komunari ekarpen bat egitea da OlatuKoopen helburua.

Koop57-ko talde eragileko kideak. Ez dago bazkide orririk bete beharrik edo kuotarik ordaindu beharrik, sareari atxikimendua eman eta kideen berrespena jaso behar da.

OlatuKoopen oinarriak irekiak dira eta lau ataletan banatzen dira:

1- Komunitatea osatzen duten kideek, auto-eraketa posible egiten duten erakundearen jabetza eta erabakitzeke ahalmen osoa dute, demokrazia ekonomikoaren eta pertsona bat bozka bat irizpideei jarraiki.

2- Komunitatea osatzen duten kideek, auto-kudeaketarako beharrezko informaziora, ezagutzara,

# Olatukoop

kudeaketa datuetara, baliabideetara eta horien erabilerara atzipen osoa eta zuzena izango dute, gardentasun irizpideei jarraiki.

3- Komunitateak, beharrezko baliabide guztiekin, elkartasun pertsonala zein komunitarioa sustatuko ditu, aberastasun banaketa orekatua eta autonomia irizpideei jarraiki.

4- Komunitateak, ondare komuna eta jasangarritasuna sustatzeko konpromisoa hartuko du, baita bere komunitatearentzako, inguruko sarearentzako eta bere ekimenak gauzatzeko dituen jendartearentzako ongi-zatea bilatzeko ardura ere.

## KOMUNITATEAK

Mondragon taldetik kanpo dauden enpresa kooperatibo eta elkarte produktiboak saretzea bilatzen du OlatuKoopek, «euren artean elkar ezagutzen joan daitezen, gero zerbitzu horiek euren artean eman ahal izateko». Ente sozial eraldatzaile bat sortzea da helburua, ekonomia eraldatzeko proposamenak mahai gainartzeko helburuarekin.

Jakintzak taldean eta gizartean zabaltzearen garrantzia aipatzen du Liher Gonzalezek, «uste dugu norbere esperientziak zenbat eta saretuago egon, alternatiba handiago bat sortzea lortu ahal izango da, elkarte bakoitza bere espazioan egotera mugatu barik, espazio hori handitzen joatea eta sare bat lortzea».

Enpresa, elkarte edo entitatea bezalako hitzen aurrean, komunitatearen terminoari garrantzia eman beharra azpimarratzen du, «guk ulertzen dugu enpresa edo entitateak komunitate txikiak direla eta guzti horiek osatzen dutela egungo gizarte eredu alternatiboaren komunitate handi bat eta guzti hori moduren baten saretzen joan behar dela».

## TOKIKO GARAPENA

Orain arte nagusiki garatutako enpresa edo elkarte ereduak kompetentzian oinarritu da, oinarritzat pertsona indibiduala hartuta. OlatuKoopek bestelako eredu bat bultzatu gura du, «guztiz kontrakoa, helburu indibiduala beharrean kolektiboa, lehiakorra izan beha-



Liher Gonzalezek eman zion Baserri Biziari olatukoopi buruzko informazioa. Gehiago: [www.baserribizia.info](http://www.baserribizia.info)

**«Guk ulertzen dugu enpresa edo entitateak komunitate txikiak direla eta guzti horiek osatzen dutela egungo gizarte eredu alternatiboaren komunitate handi bat eta guzti hori moduren baten saretzen joan behar dela»**

rrean kooperazioan oinarritua». Sare baten parte izateak, beste pertsona batzuekin lan egiteak, ardura banatzeak, gauzak erreza goak izaten lagunduko du. Esperientzien jakintza konpartitzea, harremanak sortu, «eta batez ere, etorkizunera begira, bakarrik ari diren komunitate horiek gorpuzten joatea».

Liher Gonzalezek emandako datuen arabera, 2013an EAEn ehundik gora kooperatiba sortu ziren, «baina guzti horiek ez daude saretuak, bakoitza bere aldetik ari da. Guk esperientzia horien arteko harremana sortu eta bultzatu nahi dugu, tokiko ekonomia garatzeko aukera gehiago ahalbideratu ahal izateko». Esperientziak bilduz eta gainontze koentzat eskugaragarri ipiniz, onurak guztiontzat izango direlako onak.

Horretaz gain, ekonomiaren iguruko erabakietan eragin eta presioa egin ahal izateko asmoa ere badu OlatuKoopek, eredu sozial eta eraldatzailea bultzatze-



www.hamaika.tv/tb/bideo/10002513

ko helburuarekin.

Tokiko Garapen Agentziarekin harremanak uztartu nahi ditu, beste alde batetik, OlatuKoopek. Horrekin batera, formazioari ere garrantzia eman behar zaiola gogoratzen du, ekintzailetasun sozial eraldatzailea bultzatzeko. «Horrela, gestio publikoan dauden espazioak publiko-pribatuak izan beharrean publiko-kooperatibo-komunitarioak izatea lortu daiteke», sarearen bidez alternatibak daudelako eta berri gehiago sortu daitezkeelako.

## TOPAKETAK URRIAREN 9AN

Aurkezpen eta proiektua ezagutarazeko prozesuan ari da OlatuKoop eta bide hori udagoien arte jorratuko du. Urriaren 9an topaketa bat egin asmo du OlatuKoopek, «atxikimendu gehiago lortu eta ibilbidea egiten hastea da helburua» oraingo gizarteratze prozesuaren ostean.

## OlatuKoopen oinarri irekiekin bat egiten dute

EHNE-Bizkaiak bat egiten du OlatuKoopen oinarriekin eta bertako kide da. Sindikatuarekin batera, hauek dira OlatuKoopen parte hartzen duten beste komunitateetako batzuk:

**Talaio:** softwaren librearen inguruan egiten du lana. Horretaz gain, komunitateko espazio askotan egiten dute lana bertako kideek, laguntza eskeintzen eta ekonomia eraldatzailearen aldeko esperientziak sustatuz.

**Sorginetxe:** komunikazio enpresa bat da. Ikuspegi eraldatzaile batekin egiten dute beharra. Momentu honetan, adibidez, enpresen kontabilitatea eramateko software libreko programa bat euskaratzen dabilta.

**Totem:** eskalatzekorakoan aseguratzen dituzten aparailuak egiten dituzte. Mundu mailan horma aseguratzen dituzten sistema onenarikoak eskeintzen dute.

**Koop57:** finantza etikoetan aritzen den kooperatiba da.

**KIS:** emakume talde bat da. Langabezia zeudela elkartziren. Euren egoera, esperientzia eta lanerako gogoia ikusita, behar bereziak dituzten pertsonen laguntzeko ahalmena dutela ikusi zuten eta horretan aritzen den kooperatiba sortu dute. Bezeroei egokituak zerbitzua ematen dute.

**Aholku:** aholkularitza kooperatiba bat da. Hainbat arlo jorratzen dituzte: fiskalitatea, kontabilitatea, laborala...

**Albaitaritza Lasarte:** albaitaritza arloan egiten dute lana.

**Sakantzen Sarea:** Sakanako tokiko garapena sustatzeko sarea da. Krisiaren ondorioz oso kolpatua izan da Nafarroako eskualde hau.

**Katakarak:** liburuak, edariak, jakiak eta zerbait gehiago eskeintzen duen Iruñeko espazioa: eztabaidak eta pentsamendua.

**Hiritik At:** erakunde multidisziplinaria da. Kooperatiba honek hirigintza garatzeko ikuspegi ezberdinak lantzen ditu: geografia eta arkitektura kontuan hartuta, hirietako espazioak berregituratzeko proposamenak egiten dituzte, auzotarren parte hartzea bultzatuz.

**Ximaurpila Elkartea:** biofertilizanteak egiten dituen talde bat.

**Biantik:** informatika eta horren inguruko segurtasunari lotutako lanak egiten dituen kooperatiba.

# Nuevos espacios para la agenda de la soberanía alimentaria y el movimiento campesino en la UPV

La agenda campesina y la de la soberanía alimentaria comienzan a hacerse un hueco en el marco de la UPV/EHU (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea), gracias al esfuerzo y al empeño de EHNE Bizkaia y de personas comprometidas que desde dentro la universidad trabajan por hacer de dicha institución un espacio de prefiguración de alternativas y de pensamiento crítico alternativo y contra-hegemónico.

Por un lado, desde hace más de tres años, Hegoa y EHNE Bizkaia - La Vía Campesina vienen trabajando en distintas iniciativas de investigación y formación, con el objetivo de construir una relación estratégica y de horizontalidad entre universidad y movimientos sociales, caracterizada por el reconocimiento mutuo y la coproducción de conocimiento. En este marco de acciones conjuntas destaca especialmente el proyecto común de diseño y puesta en marcha de una propuesta formativa que se ha venido a llamar "Curso Especializado en Soberanía Alimentaria y Agroecología: Propuesta y Práctica Emancipatoria". Con objeto de socializar dicha iniciativa y contrastarla con otros agentes sociales, los pasados días 9 y 10 de mayo se organizaron unas jornadas tituladas "Alianza entre Universidad y Movimientos Sociales a Favor de la Soberanía Alimentaria" y organizadas por el Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional - Hegoa de la UPV/EHU y EHNE Bizkaia - La Vía Campesina. El seminario se celebró en parte en el Salón de Grados de la Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación del Campus de Gipuzkoa, y en parte en el salón multiusos de la casa de cultura de Zerain, con la participación de varias decenas de personas y organizaciones interesadas en la iniciativa.



Dicho foro ha supuesto el pistoletazo de salida para un proceso de discusión, contraste y construcción colectiva que presumiblemente desembocará en pocos meses en una propuesta definitiva de itinerario de formación que pretende beber de las fuentes de la pedagogía de la

alternancia y del enfoque de sujetos, así como de otras escuelas de formación político-técnicas que ya existen en el seno de La Vía Campesina en Latinoamérica.

Por otra parte, el próximo curso académico 2014 -2015 verá la luz la primera edición de un título propio construido y lanzado conjuntamente por la UPV/EHU y UEU (Udako Euskal Unibertsitatea) y que cuenta con el apoyo y la participación activa de EHNE Bizkaia, propuesta formativa titulada "Agroecología: Trantsiziorako Gure Bideak Lantzen". Dicha propuesta se desarrollará íntegramente en euskera.

Ambas propuestas, que nacen con una vocación de complementariedad y de coordinación, pretenden ofrecer sendos espacios de formación a personas de múltiples procedencias, ya sean funcionarias públicas, productoras de alimentos, militantes de movimientos sociales, responsables políticos, investigadoras o sindicalistas del agro, entre otras. Vienen a cubrir un vacío enorme en nuestra universidad pública y una demanda social cada día mayor en relación a las temáticas campesinas y la agenda transformadora de la soberanía alimentaria.

En este marco de acciones conjuntas destaca especialmente el proyecto común de diseño y puesta en marcha de una propuesta formativa que se ha venido a llamar «Curso Especializado en Soberanía Alimentaria y Agroecología: Propuesta y Práctica Emancipatoria».

# Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen

UPV/EHUren Berezko Titulua  
UEUren laguntzarekin



## Agroekologiari buruzko graduondokoa UEUn

**A**groekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen» izeneko graduondokoak azken urteetan gizartean sortu eta hedatuz joan den arreta, eta aldi berean kezka, bati erantzunak ematera dator. Izan ere, krisia krisi, hainbat joera berri ari dira hahemengo gizarteetan susmatzen, eta horien artean elikadurarekin zer ikusi duen arloan. Hortaz, gero eta garrantzi gehiago ari da hartzten, egunerokoan, elikagaien «kalitatea», osasuna bera ulertzeko ikuspegi berri batetik. Baina kalitatea ez da bakarrik «eko» etiketarekin lotzen, edota «label» markekin, horretaz gain gertuko ekoizpena ere nahi da bultzatu, merkaturatze-bide zuzenak sustatu, ekoizle-kontsumitzaile hartu-emanak ulertzeko beste modu bat landu, bestelakoa, kontsumo arduratsuen bidetik... Azken finean, kalitatea ez dago bakarrik elikagaiari berari, elikagaia gure eskura heldu arteko prozesu osoari baino.

Hedatzen ari den paradigma berriaz ari gara, krisiari aurre egiteko ere balio duen ikuspegi zaharberriuz, ingurumena edota «iraunkortasuna» bera ulertzeko bestelako moduz, non onartu egi-

ten den, zinez, lehenengo sektorearen ganorazko biziraupena ezinbestekoa dela garapen iraunkorrak definizioz dituen hiru zutabeetan: ekonomikoan (garapen endogenoa, hurbila, bultzatuz), ingurumenekoan (beharrezko jarduera baita gaur gaurkoz nekazaritza arduratsua ekosistema biziak mantentzeko), eta sozialean (kalitatezko bizimodua bizirik dauden eskualdeetan).

Honaino zeri eman nahi zaion erantzuna; arreta eta kezka dugu esana, baina premia ere badela esan daiteke, eguneroko erosketa-otzaratik hasten baita krisi garaian funtsezko dugun gogoeta.

### HELBURUAK

Helburu nagusi bi buruan abiatu dugu graduondoko-proposamen hau. Batetik, «Agroekologia» bere dimentsio zabal-sakonean ulertzeko beharrezkoak diren kontzeptuak eta edukiak ematea; honek ezinbestean ermaten gaitu gaur indarrean den globalizazioaz gogoeta egitera, elikagaien fluxua funtsezkoa baita gaurko merkaturu ekonomiko globalean, eta ez munduan den gosea justiziaz asetzeko preseski.

Baina helburu «teoriko» hori ez dugu nahikoa geure intereserako; handitik txikira egin nahi dugu, globaletik lokalera etorri ere, eta horretara doa bigarren helburua: trantsiziorako baldintzak lantzea, egunez egun eta lekuz leku zirkuitu laburreko elikagai kalitatezkoak merkaturatzeko sareak indartzera, praktika hori gero eta gehiago zabalduz, eta orain arte gure inguruko lurraldeetan egindakoa, eta egileak berak ere, ezagutarazi eta ikusaraziz, iraunkortasunerantz daramaten hiru eremuetan urratsak ematen tokiko garapenetik.

### NORI ZUZENDUA

Abiapuntuan hartu dugun hipotesia hauze dugu: izan bada Euskal Herrian halako prestakuntzan aritzeko interesa duten pertsonak, jada profesionalak direnak, batetik, eta unibertsitateko ikasketak amaitu berriak jardueresparru honetan sakondu nahi dutenak, bestetik. Talde biei eman nahi die bidea graduondoko honek, beti ere teoria-praktika uztarturik trantsizioaren ibilbidea egiteko baldintzak indartuz. Lan arloko etengabeko prestakuntzari dagokionez, ez dago zuzenean baserriarrei begira, baizik eta administrazio-maila desberdinetan (edo bestelako erakundeetan) lehenengo sektorearekin (produktzioa-garraioa-kontsumoa) lotura duten, edo izan dezaketen, profesionali begira.

# Presentación de «Reclaim the fields»

Reclaim the Fields, es un movimiento Europeo de jóvenes urbanos y campesin@s, que queremos luchar para defender las tierras agrícolas de su destrucción y acaparamiento, instalando más personas en los campos para alimentarnos nosotr@s mism@s, al mismo tiempo que experimentamos nuevas formas de relacionarse más respetuosas, entre nosotr@s y con el espacio que nos rodea, mientras nos empoderamos de nuestras vidas.

La presentación durará menos de una hora, con el pase de algunas fotos con acciones que ya hemos realizado en Francia, Austria e Inglaterra. Y hablarán de: que es Reclaim the Fields, nuestra visión de la vida campesina (autonomía alimentaria y soberanía alimentaria, la PAC y otras políticas que nos afectan),



como nos involucramos en las luchas campesinas actuales (acciones, okupaciones, transgénicos, semillas, defensa del territorio: MAT, embalses, AVE/TAV, fracking), como intentamos organizar-

nos, que eventos y acciones llevamos a cabo (encuentros temáticos, campamentos, jornadas, asambleas), que herramientas tenemos a disposición para organizarnos y comunicarnos (internet, wiki interna, listas mails, calendario de acciones).

Pero también nos gustaría conocer a las personas que vengan a la presentación. Que hacéis, en que redes sois activistas, que problemas hay localmente, que podemos hacer juntas para instalar más personas y defender los territorios y la tierra agrícola de su destrucción.

Este taller se celebrará el lunes 9 de junio, a las 12.30 horas en la Kultur Etxea de Larrabetzu.

Para más información: <http://www.reclaimthefields.org/es>  
Contacto: [contacto@reclaimthefields.org](mailto:contacto@reclaimthefields.org)



## Taller sobre biofertilizantes y visita a invernaderos en proceso agroecológico

El «3 en 1» de la agricultura, una mezcla líquida que equilibra los 3 aspectos fundamentales del suelo; materia orgánica, minerales y microorganismos. El taller será el jueves 19 de junio, entre las 10.00 y 13.30 horas, en Zeberio. Para apuntarse: Unai 946232730 o ainara@ehnebizkaia.org 946232074.





## Escuela de acción campesina

Durante el mes de mayo se celebró en Abadiño el segundo encuentro de la escuela de acción campesina. El objetivo de estos encuentros es reforzar las relaciones entre organizaciones y alumnado, así como desarrollar de forma práctica las materias que se van trabajando en la plataforma online.

El próximo número de Baserri Bizia guardará un espacio para dar a conocer los resultados y las conclusiones del encuentro.

[www.ehnebizkaia.org](http://www.ehnebizkaia.org)

### SALGAI - SE VENDE

Gaztandegirako lztalakuntza ia osoa –Instalación casi completa quesería: Cuba mecánica holandesa de 600 l, con sus utensilios. Prensa neumática de 6 alturas, de 2,5 m de longitud total, con tope telescópico y compresor de 50L / 2CV. Depósito salmuera en acero inoxidable, con tapas también en inoxidable e instalación de control de temperatura con display digital. Lavadora de carga vertical (para los trapos) y pequeño frigorífico para la quesería, con bastidores de cuatro patas. 3 baldas de acero inoxidable. Envasadora de quesos. Moldes. INSTALACION DE AGUA SANITARIA Y CUBA: Caldera de gasoil. Depósito de gasoil de 1000L. Acumulador de agua 115L. Con el material de válvulas de paso, radiadores para la que la caldera se utilice para varios usos ( ordeño, cuba y calefacción). Algún que otro artículo de quesería también. Interesatuak dei dezala 646611063.

Vendo casa nueva con huerto. 116.000 euros. En la zona de Tafalla. 6504280982

Se vende caserío con pabellón de ganado con 12 hectáreas. Zona de Bermeo-Bakio. 635735988 - 699765630

Se vende alfalfa ecológica. En pelets (19% proteína) y en rama. 629204215

Se vende nave agrícola en Getxo. Apropia para conejos, cerdos o aves. 2 plantas. 800 metros cuadrados. 4.000 metros de terreno. 651881195

Ardi moztailleak. Joxe. 659262747

Se vende arado trisurco. 686323605

Vendo burra de 6 años o cambio por un carro para tractor. 688685648.

Vendo o cambio chivo de 4-5 años. 688685648. Oportunidad por cese de explotación. Se vende

ordeñadora para 24 ovejas de Delaval. 3.000,00€. 659043494.”

Ardiak salgai, ardiagaz. Sei hilabeteko aker murtziarra. Land Rover motza. Salgai. 686230420

Se venden fardos de hierba seca. 615 721 755

Se venden gallinas, gallos y polluelos. 686 149 250

Se vende novillo limusine nacido en abril. 944556552

8.000 metroko terrenoa salgai, 4.000 metroko inberradero multiarekin. Tolosaldean. 661074820

Zekor bi salgai, 6-8 hilabetekoak. Limousinak, kartadunak. 633177715

Se vende motoazada pequeña, a buen precio. 605 744 515

Se venden vacas betizu. Mansas, manejables para cualquier prado o monte. 655 706 073

Se vende granja en Getxo, a 3 kms de la Avenida de Los Chopos, entre Fadura y Jolaseta. 4000m2 de terreno con un edificio de 1.560 m2. Idónea para la explotación avícola y porcina y también para la cría de champiñón. Urge vender, precio a convenir. 651 881 195

Venta de dos parcelas de terreno agrícola en Erandio Goikoa. 5.800 y 3.200 metros. 615781398

Txakur kumak salgai. Pastor alemán raza pura. 620 675 503

Vendo tres pollos de caserío (corral). 946225147 646104490

Se ofrece pastor para vacas, ovejas y cabras. 38 años, navarro. Interesad@s llamar a 618 04 65 70 (Pedro).

Se venden sementales y novillas para madres con alta genética. 629 469 452.

Salgai 12 hilabeteko behorka. Hezita dago. Telef. 628 34 08 32

Se vende novillo limousinn sin cuernos. 944556552

Se venden estacas de acacia y alambre ganadero. Se hacen cierres y limpieza de terreno. Tif 666 583 478

Agria motoazada salgai. Egoera onean. 685 735 886

Se vende Jeep Cherokee. Año 95. 2.500 TD. 2.200 euros. 628440381

Vendo NISSAN NAVARA. 5.000€. 699300342

Limpiezas de chimeneas, estufas, cocinas económicas, calderas de calefacción, etc. Urko 605 770 754

Vendo 21 cajas de cartuchos. Calibre 28. 130 euros. 946731120

Segadora ilegadora marca ALFA. 685735886

Se vende explotación de vacuno de leche con terreno. Nave de 60x20 m apta para cualquier actividad agraria. 615 137 323 – 696 415 396

Se venden fardos de paja de cebada, de 6 cuerdas, metidos en almacén. 679 485 712 – 626 496 393 (Joseba)

Se vende cereal y leguminosas ecológicas. 15.000 kg de trigo y 2.500 kg de yeros. 618 758 550

Se hacen para trabajos de miniexcavación, desbroce, zanjas, derribos,... (tengo la maquinaria) 628 440 381 AITOR

### EROSTEKO - COMPRA

Golda SAME delfino 35 de segunda mano. 94 616 64 86

Arazola eta Axpe inguruan landak errentan hartzeko prest. 662 005 579

Ipini hemen iragarkia **DOHAINIK** 94 623 27 30

# elikaherria.org

ELIKADURA BURUJABETZA. ESKUTIK HARTUTA

## webgunea

- Berriak
- Aldizkariak
- Argitalpenak
- Bideoteka
- Gertakizunak
- Ekintzak...

Un espacio de apoyo  
y altavoz para las  
luchas campesinas,  
la soberanía  
alimentaria y el  
consumo  
transformador.

#ElikaduraBurujabetza  
#SoberaníaAlimentaria



Súmate a nuestra  
comunidad en

- > [www.elikaherria.org](http://www.elikaherria.org),
- > [Facebook.com/elikaherria](https://Facebook.com/elikaherria)
- > [Twitter.com/elikaherria](https://Twitter.com/elikaherria)
- > Flickr...



(Laster)  
.eus

[Evento recomendado]



Documental honen bidez Euskal Herriko espainiar desberdinez bizitzera gonbidatzen zaituztegu, stop a etxerriate bizitzaren den tokietan...  
A través de este documental nos invitamos a conocer diversas experiencias en Euskal Herria, donde la acción se transforma en realidad... Nuevas formas hacia la soberanía alimentaria.

**BIDE BERRIAK**  
ELIKADURA BURUJABETZA EUSKAL HERRIAN

**GONBIDAPENA INVITACIÓN**  
ESTREALDIA  
Buztintza 12:00z, zabalera,  
Wanda KAFE KAPITZOLA,  
Bilbo, Martes 18.00z.

¿Soberano lo que comemos? (De dónde viene?, cómo se produce? ¿Quién lo produce?)

¿Soberano sus terrenos de cultivo o alimentación? ¿Qué rol juegan el educador y el productor de forma sostenible?

La alimentación implica mucho más que producir y consumir, es una nueva forma de organización y de relaciones más justa, donde las personas, la dignidad, la solidaridad cobran su nuevo sentido.

Organizadores:




¿Bide berriak berriak dira? ¿Kontu berriak? Nola elkarrekin? Nola elkarrekin elkarrekin?

Bide berriak elkarrekin elkarrekin, kulturak elkarrekin eta modu partekatuen bidez elkarrekin, zuzen hori gurekin elkarrekin elkarrekin.

Elikadura elkarrekin eta kontu berriak berriak dira, antolatuta eta harmonia desberdinez eta justuak erakitzeko da, non pertsonak, diptasua eta elkarrekin modu berri berrak proiektatzen diren.

Astakerak:



- Noticias
- Revistas
- Publicaciones
- Videoteca
- Eventos
- Acciones...